ZARAUZKO UDALA

ZARAUZKO "UDABERRI" JUBILATUEN ETXEKO TABERNA/KAFETEGI/JANGELA ZERBITZUAREN USTIAPENA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA.

1. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honen bitartez egingo den kontratuaren xedea izango da ZARAUZKO "UDABERRI" JUBILATUEN ETXEKO TABERNA/KAFETEGI/JANGELA ZERBITZUA USTIATZEA. Taberna-jangela (eraikina Udalaren titularitatekoa da), eta kontratua, Baldintza Administratiboen Pleguaren, Baldintza Teknikoen Pleguaren eta espedientean ageri den dokumentazio teknikoaren arabera egingo da. Agiri horiek kontratuzko izaera edukiko dute.

USTIAPENERAKO ESPAZIOAREN DESKRIBAPENA

Ustiapenak I. ERANSKINEAN koloreztatuta azaltzen diren espazio hauek hartzen ditu zehazki:
- SOTOAN: biltegia Udaberri jubilatu-elkartearekin erdi bana.
- BEHE SOLAIRUAN: sukaldea, taberna-jangela, hozgailuen gela, biltegi auxiliarra, komunak.
- KANPO EREMUAN: zigordia kalean, taberna parean terrazarentzat erreserbatutako gunea.

Taberna eta jangela zerbitzuaren ustiapenak ez du hartzen kanpoko patioko eremua. Patioaren eremu hori, berariaz, Udaberri Jubilatuen elkartearen erabilerarako izango da.

Adjudikaziodunak zerbitzuak normal funtzionatzeko beharrezkoak diren produktuen eta gaien salmentaz arduratu beharko du. Horiek horrela, horien kalitatearen gaineko erantzukizuna izango du, eta taberna baten berezko zerbitzuak eskaini ahal izango ditu; ondorioz, alkoholdun nahiz alkoholik gabeko edariak zerbitzatu ahal izango ditu, baita kafeak eta suzedaneoak, pintxoak, kazolatxoak, menuak eta gainerakoak ere.

Jubilatuen Elkartean baldin badago ere, herritar guztientzat zabalik dago, UDABERRI Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkarteko bazkide diren ala ez kontuan izan gabe. Halere, kontuan izan behar da zerbitzuko erabiltzaile gehienak erretiratu eta pentsiodunak direla, eta horretxegatik adjudikaziodunak errespetuzko eta laguntzazko jarrera izan beharko du.

2.- UDALAK ADJUDIKAZIODUNAREN ESKU JARTZEN DITUEN BALIABIDEAK

Zarauzko Udalak, emakida hau hasten den unean, guztiz instalatuta ditu zerbitzuaren oinarrizko funtzionamendurako beharrezkoak diren tresnak; tresna txiki eta produktu suntsigarriak izan ezik, II eranskinean ageri den inbentarioan jasotakoaren arabera.

Hala ere, adjudikaziodunak, bere kontura, egokitzat jotzen dituen osagaiak jarri ahal izango ditu zerbitzurako, baldin eta horren ondorioz, instalazioetan obrarik edo aldaketarik egin behar ez bada, eta aldez aurretik Udalak horretarako baimena ematen badu.

Zerbitzua ematen hasteko akta egingo da. Adjudikaziodunaren esku jarriko dira II. eranskinean jasotako inbentarioa, eta adjudikaziodunarekin egiaztatu eta alderatuko da kontratua formalizatu aurretik.

Zerbitzuaren alde egindako hobekuntza, konponketa eta jarritako elementu higiezin guztiak, kontratua amaitzean, Udalari emango zaizkio; aitzitik, kontratua amaitzean, adjudikaziodunak zerbitzuaren eskura jarri dituen ondasun higigarriak kendu ahal izango ditu.

Erabilera arruntaren ondorioz kontsumitutako gasa, ura eta argindarra ordainduko ditu Zarauzko Udalak; dena den, bere ustez aipatutako kontsumo horiek neurriz kanpokoak badira adjudikaziodunari kobratu ahal izango dizkio.

Esku artean dugun zerbitzuan erabiliko diren materialak eta bitarteko lagungarriak inola ere ezin izango dira zerbitzutik atera, ezta instalazio horietatik kanpo erabili ere, baldin eta Udalak, aldez aurretik, idatziz horretarako baimenik ematen ez badu.

3 .- ESKAINIKO DIREN ZERBITZUAK

Adjudikaziodunak zerbitzu hauek eman beharko ditu:

- Taberna eta jatetxearen zerbitzua.
- Espazioen garbiketa: taberna, sukaldea, jangela, tabernako biltegiak, komunak, eta horietako instalazio eta tresnen garbiketa egin beharko du IV. Eranskinean azaltzen den maiztasunean.
- Udalak eta Udaberri Jubilatu Elkarteak eskatzen dizkion zerbitzu bereziak (luncha, askariak, etab.) egiteko konpromisoa hartzen du.
- Udaberri Jubilatu Elkarteko billar aretoko giltzen kudeaketa. Kudeaketa hori gauzatzeko modua Udaberri Jubilatu elkarteko zuzendaritza taldearekin adostuko dute eta beraiekin koordinatuko dira.
- Udaberrri Jubilatu elkarteko lehenengo pisuko aretoko atea ireki eta ixtea asteburutan eta jai egunetan. Udalarekin eta Udaberri Jubilatu elkarteko zuzendaritza taldearekin adostuko dute eta beharren arabera egokitzeko aukera izango da, beti udalaren berariazko baimenarekin.

4.- ORDUTEGIA ETA EGUTEGIA:

Udalaren eskumena izango da zerbitzuaren ordutegia ezarri eta aldatzea.

Zarauzko "UDABERRI" Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkarteko taberna-jangelaren zerbitzua egunero emango da ordutegi honetan:
Gutxienez:
Astelehenetik- igandera: 10:00etatik 20:00etara.
Gehienez:
Astelehenetik –ostegunera: 10:00etatik 23:00etara
Ostiraletan, larunbatetan eta jai bezperetan: 10:00etatik 00:00etara
Udaran (ekainak 1etik irailak 30era egunero) : 10:00etatik 00:00etara

Salbuespen moduan, abenduaren 24an eta 31n taberna arratsaldeko 13:00etan itxi ahal izango da eta, hurrenez hurren, abenduaren 26ko eta urtarrilaren 2ko goizeko 11:00ak arte itxita eduki. Dena den, Udalak baldintza hauek aldatzeko ahalmena izango du.

Astean behin atseden egun bat finkatu ahal izango da. "Asteko atseden eguna" adjudikaziodunak proposatuta udalarekin adostuko da.

Adjudikaziodunak urtean 15 egunez itxi ahal izango du, gehienez, taberna- jatetxearen zerbitzua, udaberri Jubilatuen Elkarteko Zuzendaritza Batzordearik adostu ondoren, Udalak berariazko baimena emanda.

Adjudikaziodunak urtero udalari egingo duen egutegi proposamena aurkeztuko dio, urtarrilaren 30a baino lehen, udalak ontzat eman dezan. Onartutako egutegian eta ordutegian edozein aldaketa egiteko udalarekin adostu beharko du eta udalaren berariazko baimena beharko du.

5.- TABERNA JATETXEAREN PRODUKTUEN PREZIOAK

Kontratua exekutatzerakoan, indarraldiko lehen urtean ezarri beharreko prezioak plegu Tekniko honen III. eranskinean ageri direnak izango dira, azaldutako kontzeptuetan: eguneko menua (bi plater, postrea eta edaria), menu laburra (plater bat, postrea eta edaria), Kafeak, freskagarriak eta bestelakoak. Gainontzeko prezioak (edari alkoholdunak) adjudikaziodunak zehaztuko ditu, udalari jakinaraziz. Udalak ezarritako prezioak urtero eguneratu ahal izango dira, adjudikaziodunak udalari proposatuta eta honek ontzat emanda. Prezioak jendaurrean erakutsi beharko dira, ageriko lekuan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzetan.

6.- ADJUDIKAZIODUNAREN BETE BEHARRAK

- Adjudikaziodunak kontratuaren xedeari dagozkion funtzioak betetzeko langileak kontratatu ahal izango ditu. Langileek, zerbitzua eskaintzen duten bitartean, uneoro eta kasu guztietan, lan arloko araudia bete beharko dute, eta Gizarte Segurantzan alta emanda egon beharko dira. adjudikaziodunak administrazioari eman beharko dio kontratatuta dituen langileen informazioa.
- Adjudikaziodunak kontratatzen dituen pertsonek ez dute inolako mendekotasunik edo harremanik izango Udalarekin.
- Zerbitzua ematen ari diren langile guztiek baldintza hauek bete beharko dituzte:
    - Elikagaiak manipulatzeko txartelaren edo egiaztagiriaren jabe direla egiaztatu beharko dute.
    - Txartelak indarrean egon beharko du kontratuaren exekuziora atxikita gelditzen diren une beretik kontratuak dirauen bitartean.
- Gaixotasunak, istripuak, baimenak e.a. direla medio, langileren bat bajan badago, adjudikaziodunak ordezkoak izendatu beharko ditu, horrela, zerbitzua zuzen eta kontratuan ezarritakoaren arabera eskaintzen jarraitzeko, eta hartutako betebehar guztiak bete ahal izateko. Egin beharreko ordezkatzeak jakinaraziko zaizkio Udalari.
- Ordezko langileek goian aipatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.
- Erabat debekatuta dago edozein motatako kartelak, idazkinak edo publizitate iragarkiak jartzea horretarako izendatutako lekutik kanpo.
- Adjudikaziodunak zerbitzuaren funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezkoak diren produktuen eta gaien salmentaz arduratu beharko du. Horiek horrela, horien kalitatearen gaineko erantzukizuna izango du. Zerbitzua betetzeko garatzen dituen lanen eta eskainitako prestazio eta zerbitzuen erantzule izango da eta baita izaten diren gabezien, akatsen, erabilitako metodo desegokien edota erabaki okerren ondorioz gertatutakoaren erantzule ere.
- Kontuan eduki beharko du 1/2016 legea, apirilaren 7koa Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa eta lege horrek dion bezala 18 urtetik beherakoei ezin izango zaie alkoholdun edaririk saldu, ez eta eskueran jarri ere. Erabat debekatuta dago tabakoa saltzea, bai zuzenean, bai zeharka. Txanpon-makinak, joko makina eta tabako makinak ez dira onartuko tabernan.
- Otordu eta afaritako ura txarrotan aterako da, botilako ura kontsumitzea berariaz eskatzen denean izan ezik
- Udalak ez du inolako erantzukizun penalik, zibilik edo beste edozein motatako erantzukizunik izango, adjudikaziodunak hornitzaileei ordainketak egiten ez badizkio, hornitutako kontsumo-produktuen ondorioz toxikazioak gertatzen badira eta/edo beste edozein arrazoi dela medio.

- Utzitako instalazioetan, makinen eta altzarien mantentze eta konponketa lanak adjudikaziodunaren gain izango dira. Instalazioen eta ekipamenduen mantentzea eta iraunaraztea bermatzeko beharrezkoak diren gastuak bere kargura izango dira.
- Adjudikaziodunari dagozkio, sukaldeko tresnak, baxera eta kristalezko ontziak jarri eta berritzea.
- Adjudikaziodunaren kontura izango dira tabernako prentsa, aldizkariak, telebista, kanal pribatuak eta antzekoak, Interneteko zerbitzuak, etab.
- Kontratuak irauten duen epean, Udalak edozein momentutan egin ahal izango du ikuskapen bisita. Kontratuaren epea bukatzear dagoenean berriro ikuskapen bisita luzatuko da, Udalari ondasun guzti hauek hartu zituen moduan eta erabiltzeko gai itzultzen dituela egiaztatuko delarik.
- Adjudikaziodunak plegu hauetan jasotako zehaztapenez gain, udalak ezarritako taberna/kafetegi/jangela jardueraren funtzionamendurako arau orokorrak bete beharko ditu.

I. ERANSKINA

USTIAPENERAKO ESPAZIOAK

Ustiapenerako, planoetan koloreztatutako espazioak erabiliko ditu.

- SOTOAN: Tabernako biltegia Udaberri jubilatu elkartearekin erdi bana
- BEHE SOLAIRUAN: sukaldea, taberna-jangela, biltegia auxiliar handia, komunak.

Taberna eta jangela zerbitzuaren ustiapenak ez du hartzen kanpoko patioko eremua. Patioaren eremu hori, berariaz, Udaberri Jubilatuen elkartearen erabilerarako izango da.



SOTOA


16.30m²
SUKALDEA
5.61m²
TABERNA
108.70m²
JANGELA
7.44m²
BILTEGIA
3.46m²
1.74m²
4.00m²
5.34m²
31.91m²
SUKALDEA
SUKALDEKO BILTEGIA
UDABERRI
BEHE SOLAIRUA
e:1/100

II. ERANSKINA

TABERNA-JANGELA

1	TPV-Kobratzeko makina
1	Izotz-makina
1	Edalontzi-garbigailua
1	Egurrezko barra, azpian altzairu herdoilgaitzezko armairu-hozkailuak eta harraska
2	Apalak
1	Paretako erlojua
1	Paretako erloju elektronikoa
2	Kortxozko informazio-panelak
16	Mahaiak
42	Aulki besodunak
10	Egurrezko esekitokiak
1	Altzairu herdoilgaitzezko armairua, kafetera eusten duena

SUKALDE NAGUSIA

1	Ate bateko hozkailua
2	Altzairu herdoilgaitzezko harraskak
1	Harraska azpiko armairua
2	Gas-berogailua
1	"Comanda" ontzi-garbigailua
1	Sukalde industriala, 4 gas-erregailurekin eta labearekin
2	Mikrouhina eta labe txikia
1	Sukalde azpiko altzairu herdoilgaitzezko armairua
1	Sukalde gaineko mahai laguntzailea
2	Egurrezko apalak
1	Ke-kanpaia
1	Tapadun kazolak, lapikoak
1	Presio –eltze chef luxe 22 litro
	Sukalde aurreko biltegi txikian: Hozgailuak (kamarak) eta apalak

BILTEGI AUXILIAR HANDIA Espazio honetan ez dago gasik, ezta surik ere.

10	Formikazko armairu altuak
2	Altzairu herdoilgaitzezko harraskak
1	Mahai osagarria
5	Lapiko tapadunak
4	Kazola

ZARAUZKO UDALA

III. ERANSKINA

Menu osoa: Bi plater, postrea eta edaria
Menu erdia: Plater bat, postrea eta edaria

FRESKAGARRIAK	
Guztiak	1,80 €
Fruta zukuak	1,80 €
Alkoholik gabeko zerbeza	1,80 €
KAFEAK	
Hutsa eta ebakia	1,10 €
Kafesnea	1,20 €
Kafesnea basoan	1,30 €
Baso esnea	1,20 €
Infusioak	1,20 €
kola kao	1,30 €
BESTEAK	
Ur txikia	1,00 €
Ur handia	1,50 €
Olibak	1,50 €
Pintxoak	1,40 €
Patatak	1,00 €
Txokolatea eta 6 txurro	3,00 €
MENUAK	
1MENUA: Astegunetako menua osoa	13,00€
2 MENUA:Jaiegunetako menu osoa	16,00 €
3 MENUA Menu erdia	9,00 €
Menuen prezioak beherantz hobetu ahalko dituzte lizitatzaileek eta baloratu ahal izango dira	

IV. ERANSKINA

Garbitasuna

UDABERRI TABERNA	MAIZTASUNAK					
LANAK	EGUNERO	ASTERO	HILERO	HIRUHILABETERO	SEIHILERO	URTEAN BEHIN
Erratza pasa						
Zorua garbitu						
Hormetako hautsa garbitu, 1,8 metro altuera arte						
Sabaia garbitu						
Altzarietako hautsa kentzea						
Altzarien garbitasun sakona						
Komunen garbiketa						
Gortinak garbitu						
Argi puntuak garbitu						
Hautsontzi eta paperontzi garbiketa						
Erradiadoreen hautsa kentzea						
Ate eta markoen garbiketa						
Fatxadako kartelaren garbiketa						
Garbiketa orokorra eta sakona						